



BEZEROEN SEGMENTUA

Gure bezero segmentuak adin desberdinetako eta mota desberdinetako pertsonak barne hartzen ditu:



- **Arlo ekonomikoa:** Balio erantsia bilatzen duten eta horregatik gehiago ordaintzeko prest dauden pertsoneri zuzentzen gataizkie.



- **Ingurumena:** Gure produktuak ingurumenarekin sentsibilizatuta dagoen publikoari zuzenduta daude, modu jasangarrian fabrikatutakoa balioan jartzen duena eta ahalik eta gutxien kutsatzen duena.



- **Originaltasuna:** Produktu original batekin bereizi nahi duten pertsoneri zuzentzen gara, produktu hori pertsonalizatuz.

- Gure **bezeroen ezaugarriak:**
 - Edozein pertsona: haur edo zahar, gizon edo emakume.
 - 18 eta 40 urte bitarteko gizon-emakumeek izango dute errezen gure enpresaren berri.
 - Logotipo inprimatua duten jantziak bilatzen dituzten enpresari edo erakundeak.

Merkatu ikerketa bat egin genuen enpresa sortzeko ideia izan ondoren. Galdeketa bat egin genuen 18 eta 40 urte bitarteko hainbat pertsoneri musuko ekologikoei buruz galdetuz.

Ondorengo estekan ikus daiteke egindako inkesta:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdp6_TeXKHtTmliTcwDWJS6Ex0fkOh_2xeJviv7wVj5Y-gr7g/viewform?usp=sf_link

Bertatik ateratako ondorioak honako hauek izan dira:



- **Pertsonalizatuak:** Gehienek nahiago dute musuko pertsonalizatuak zuriak baino. Gainera, pertsonalizatu ahal diren musukoengatik gehiago ordaintzeko prest egongo lirateke.



- **Erosotasuna:** Gehienek musuko baten erosotasuna babesaren aurretik jartzen dute. Gure ustez, erantzun horien arrazoia, hartu den neurri hau epe luzerako izango dela eta musukoak erabiltzen denbora asko emango dugula da.



- **Erosketa prezioa:** Musuko bakoitzak 12 eta 15 euro arteko prezioa izango du. Pertsona askok 12 euro edo gehiago ordainduko lituzkela adierazi zuten. Beti ere, homologatuak eta seguruak direla jakinda.

Guk salduko ditugun musukoei dagokienez, erantzun oso onak jaso ditugu. Inkestan parte hartutako pertsona gehienak gure musukoak erosteko prest agertu baitira. Balio erantsi horrek bereizi egiten gaitu oraintxe bertan musukoak bezalako merkatu zabal batetik.

Beraz, merkatu ikerketa baliagarri izan zaigu jendearen nahiak asetuko baitditu gure proiektuak.